

8. FUNTSEZKO JARDUERAK:

Iragartzen dugu gaur egungo gazteak edo, oro har, 18 urtetik gorakoak sar daitezkeenak erakartzeko, bezero berriak erakartzeko eta gure enpresaren errekonozimendua indartzeko xede-publikoaren artean , atseginak izan behar gara. Hortaz gain, gure helburu garrantzitsuena ahalik eta zerbitzurik onena ematea da. Azken finean jendea diskotekara gozatzeko eta ondo pasatzeko helburuarekin etortzen dira. Lehen aipatu dugun bezala gure langileak oso atseginak eta lagungarriak izango dira, hau da, langileak etortzen diren gazteei laguntzeko prest egongo dira momentu guztian.

Arazorik izanez gero, berehala konponduko ditugu. Norbaitek borrokak eragiten baditu edo portaera txarra badu, langileek abisatuko diote eta, kasurik okerreanean, diskotekatik kanporatuko dute. Hori guztia gure bezeroak seguru senti daitezen eta gure lokalean komodoak izan daitezen.

Bestalde, gure bezeroen gogobetetasuna oso garrantzitsua da guretzat. Hasteko, aktibo egongo gara sare sozialetan eta gure postan, eta komunikazio-bide eraginkorrak ezarriko ditugu bezeroen iruzkinak jasotzeko, baita inkestak, sare sozialetan egindako iruzkinak eta haien iritziak ulertzeko. Eta, jakina, gure produktuaren kalitatea egokia dela bermatuko dugu. Hori guztia gure enpresatik gutxieneko xehetasun bakoitzaz arduratzen garelako, gure bezeroen erosotasuna errazteko.